

521/2022 Ebazpena, ekainaren 20koa, Osakidetzako Giza Baliabideen zuzendariarena, zeinaren bidez agindu baita argitaratu behar direla Osakidetzaren web-orrian 9 Lehentasuneko aldi baterako kontratazio-zerrenda behin betikoak (2014ko Kontratazio-zerrendak), modalitate hauetan: A.1. (Fakultatibo Mediko-teknikoak) eta B.1 (Diplomadun Sanitarioak) lanbide-taldeetako lanpostu hutsen zerrenda eta ordezkapenen zerrenda

Osakidetzako zuzendari nagusiak uztailaren 15ean emandako 1282/2011 Ebazpenaren bidez (EHAA, 142 zk., 2011ko uztailaren 27), onartu egin ziren Osakidetzan estatutupeko lotura finkoa eskuratzeko 2011ko Enplegu Publikorako Eskaintza arautuko zuten oinarri orokorrak.

2011ko Enplegu Publikorako Eskaintzaren ondoriozko aldi baterako kontratazio-zerrendak Osakidetza Ente Publikoaren Administrazio Kontseiluak 2011ko maiatzaren 9an emandako Erabakiaren arabera arautzen dira (EHAA, 106 zk., 2011ko ekainaren 6).

Martxoaren 29ko 326/2022 Ebazpenaren bitartez argitaratu ziren Osakidetzaren web-orrian 9 lehentasuneko aldi baterako kontrataziorako behin-behineko zerrendak, modalitate hauetan: A.1 (Fakultatibo Mediko-teknikoak) eta B.1 (Diplomadun Sanitarioak) lanbide-taldeetako lanpostu hutsen zerrenda eta ordezkapenen zerrenda.

Behin-behineko zerrenda horien aurka ezarritako erreklamazioak aztertu ondoren,


#### **EBAZTEN DUT**

**Lehenengoa.-** Aldi baterako kontrataziorako 9 lehentasuneko behin betiko zerrendak Osakidetzako web-orrian argitaratzeko agintzea, modalitate hauetan: A.1 (Fakultatibo Mediko-teknikoak) eta B.1 (Diplomadun Sanitarioak) lanbide-taldeetako lanpostu hutsen zerrenda eta ordezkapenen zerrenda.

Zerrenda horiek 2022ko ekainaren 21etik aurrera egongo dira indarrean.

**Bigarrena.-** Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpen hau web-orrian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko ekainaren 20a



**Osakidetza**  
Luisa Larrauri Ereñozaga  
GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA  
DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS

Sin.: Luisa Larrauri Ereñozaga

**OSAKIDETZAKO GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA**